



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arrasateko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

ELKARLAN HITZARMENA

AURKIBIDEA

1. SARRERA: ZIOEN ADIERAZPENA	2
2. ARRASATEKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA	2
3. ARRASATEKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAREN MISIOA ETA HELBURUAK.....	3
4. PLANA GARATZEKO ELKARLANERAKO ADOSTASUNA	3
5. ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA.....	4
5.1 GOBERNU ORGANOAK	4
5.2 OSOKO BATZARRA	4
5.2.1 <i>Osoko Batzarraren osaketa</i>	<i>4</i>
5.2.2 <i>Osoko Batzarraren zereginak.....</i>	<i>4</i>
5.2.3 <i>Osoko Batzordearen funtzionamendua.....</i>	<i>4</i>
5.2.4 <i>Ohorezko Lehendakaria: egitekoak.....</i>	<i>5</i>
5.3 BATZORDE ZUZENDARIA.....	5
5.3.1 <i>Helburuak.....</i>	<i>5</i>
5.3.2 <i>Zereginak.....</i>	<i>5</i>
5.3.3 <i>Batzorde Zuzendariaren osaketa</i>	<i>6</i>
5.3.4 <i>Aukeratzea.....</i>	<i>6</i>
5.3.5 <i>Karguak.....</i>	<i>6</i>
5.3.6 <i>Lehendakariaren egitekoak</i>	<i>7</i>
5.3.7 <i>Funtzionamendua</i>	<i>7</i>
5.4 LAN-BATZORDEAK	8
5.5 IDAZKARITZA TEKNIKOA	8
6. ELKARLAN HITZARMENEAN SARTZEA ETA BERTAKO KIDE IZAERA GALTZEA	9
7. HERRITARREN PARTE-HARTZEA.....	9
8. ELKARLAN HITZARMENAREN ZABALKUNDEA	10
9. HITZARMENA BERRITZEA.....	10
10. ERANSKINA: EBPN-REN 2007-2010 URTE ARTEKO HELBURUAK	11

1. SARRERA: ZIOEN ADIERAZPENA

Demokrazia parte-hartzailean eragile sozialak eta ekonomikoak herriaren lidergoan inplikatzeko dira, herri mailan gauzatzen den demokrazia hobetuz.

Maila guztietako legeek diote aginte publikoek sustatu eta erraztuko dutela herritarren parte-hartzea bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean. Horrela, Europako Batasunak, adibidez, gomendatzen du maila lokalean lor daitekeela, beste maila batzuetan baino hobeto, herritarrek erabaki politikoetan parte hartzea eta, horretarako, udalek moduak sortu beharko lituzketela herritarrek herriko gai nagusien kudeaketan parte hartzeko.

Udalaren nahia da parte-hartze bideak zabaltzea herritarrek herriko bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte-hartze zuzena izateko eta, horrela, pertsonen garapen osoa sustatu eta kudeaketa publikoan herritarren inplikazio handiagoa lortzeko.

Bide berritzaileak jorratzea dagokigu, herria indartu eta aurrera ateratzeko ahaleginean eragile publikoek eta pribatuek inplikaturik eta koordinaturik jarduteko, guztiok ere erabaki-prozesuetan parte hartu eta gure esku dauden ekarpenak egiteko.

Parte-hartzeaz ulertzen dugu gure bizitzari eta geu bizi garen komunitatearen bizitzari dagozkion erabakiak partekatze prozesua.

Elkarlan Hitzarmena hausnartzeko, eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko tokia izango da. Eta Elkarlan Hitzarmen hau sinatzen duten erakundeek proposamenak kontuan hartuko ditu Udalak bere ekintza planak egiten dituenean.

2. ARRASATEKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA

Arrasateko Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia abian jartzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrek 2004ko ekainaren 7an egindako bilkuran.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia epe luzeko plana da. Ezinbestean, eskatzen du herriaren parte-hartze zabala eta, horrela, planaren oinarria jartzerakoan alaitasun handienarekin bila joan da Udala. Halaber, horrela jokatu nahi du bai helburuak garatzerakoan bai planaren emaitzak ebaluatzerakoan.

Horretaz gainera, Udalak Arrasateko EBPN plan bizia izatea nahi du, etengabean egokitzen joango dena, plana prestatutakoan aurreikusitakoa betetzen joan delako edo aurreikusi ez diren gertakariak agertu direlako.

2005eko ekaina eta azaroa bitartean, Arrasateko EBPN-ren Hausnarketa Estrategikoa egiten jardun zuen eta 2006ko apirila eta abendua bitartean, berriz, Plan Estrategikoa egiten. Lanbide horietan bidelagun izan ginen hainbat entitatetako partaideak eta, orain egoki gauzatua izan dadin, elkarlan hitzarmena sinatzen dugu.

(Sinatzen duten eragileen zerrenda)

3. ARRASATEKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAREN MISIOA ETA HELBURUAK

Misio edo hogei urtera begirako helburu nagusi hau dugu zehaztuta Arrasateko EBPN-n:

Arrasaten bizi diren euskaldun gazteek ia beti euskaraz egin ahal izatea; eta egitea eta eragitea; alor pribatuan, publikoan eta ofizialean¹.

Lau urtera begira, helburu hau dugu zehaztuta:

Orokorrean, norberaren euskararen garatuko ditugu harremanak, edozein izanda dugun euskara hori. Dakitenek euskalkia baliatuko dute. Dakitenek hika hitz egingo dute.

Lau esparru nagusitan bereiztuta zehaztu ditugu helburuak:

- Etxe barruko erabilera.
- Etxetik kanpo.
- Erakunde pribatuen eskaintza.
- Erakunde ofizialen eskaintza.

4. PLANA GARATZEKO ELKARLANERAKO ADOSTASUNA

Dokumentu hau sinatzen dutenak ados daude elkarlanean aritzeko ezarritako misioa eta helburuak garatzeko ibilbidean. Erakunde bakoitzak bere aldetik eta guztiok elkarlanean, jarduerak burutzeko aukera eskaintzen dute eta horretarako:

1. Bakoitzak bere erakundearen bultzatu, indartu eta betetzeko beharrezko diren baliabideez hornitzeko konpromisoa hartzen dute.
2. Egitasmoak betearaziko dituzten organoak sortzen dira.
3. Hitzarmen honek ez du bakoitzak bere aldetik egiten duen jarduera edo egin dezakeena ordezkatzeko. Halaber, ez ditu ordezkatzeko jarduera horietarako dituzten edo etorkizunean izan ditzaketen alde biko edo alde anitzeko hitzarmenak edo akordioak.

¹ Zein dira Arrasaten bizi direnak?: Arrasate udalerrian, erroldatuta ala ez, urteko egunik gehienetan bertan bizi direnak (lo egiten dutenak).
Zein dira euskaldunak?: Euskaraz egiteko gauza direnak, nahiz eta erdaraz egin.
Zein dira gazteak?: 5 urtetik 45 urtera bitartekoak.
Zer da ia beti euskaraz egin?: Arrasateko bizitzaren %66-%100ean; erakunde ofizialean 24 ordu 365 egunetan.
Zer da euskaraz egin ahal izatea?: Inolako kosturik gabe egitea.

5. ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

5.1 Gobernu organoak

Elkarlan Hitzarmeneko antolamenduan organo hauek egongo dira:

1. Osoko Batzarra
2. Batzorde Zuzendaria
3. Lan-batzordeak
4. Idazkaritza Teknikoa

5.2 Osoko Batzarra

Osoko Batzarra da Elkarlan Hitzarmeneko organo gorena.

5.2.1 Osoko Batzarraren osaketa

Ohorezko Lehendakaria: Alkatea edo hark eskuordetzen duen zinegotzia.

Osoko Batzarra sinatzaile guztiek osatzen dute. Erakunde sinatzaile bakoitzak hiruna ordezkari izango ditu.

5.2.2 Osoko Batzarraren zereginak

Osoko Batzarrak zeregin hauek ditu:

1. Batzorde Zuzendaria izendatzea.
2. Batzorde Zuzendariaren jarduera-ildo orokorrak zehaztea, eta ildo horiek betetzen direnentz zaintzea.
3. Lan-batzordeak sor daitezen adostea.
4. Kide guztien gehiengo osoa izanda, arautegi hau aldatzea.
5. Euskararen normalizaziorako norabideak hausnartzea eta jarduera-ildoei, programazioari eta programak gauzatzeari buruz Batzorde Zuzendariak aurkeztutako Plana eztabaidatzea eta erabakitzea.
6. Beste kide batzuk sar daitezen eta sartuta daudenak atera daitezen onartzea.

5.2.3 Osoko Batzordearen funtzionamendua

Osoko Batzarraren funtzionamendua hauxe izango da:

1. Osoko Batzarrak urtean behin izango du ohizko bilkura. Batzorde Zuzendariak aldeztu aurretik egingo du deialdia. Ohiko bilkura horien deialdia gutxienez hamabost egun lehenago egingo da.

2. Ohiz kanpoko batzarra Batzorde Zuzendariak deituta edo kideen laurden baten eskariz egingo da.
3. Gai zerrenda Batzorde Zuzendariak egoki deritzon gaiekin eratuko da.
4. Eztabaidan eta, hala dagokionean, gai zerrendako gaiei buruzko dokumentazioak Idazkaritza Teknikoak izan behar du, partaidetza osatzen duten kideen eskura. Dokumentazio horrek deialdiaren egunetik bertatik egon behar du gertu.
5. Osoko Batzarra lehen deialdian baliozkoa izan dadin, bazkideen erdiek gutxienez egon behar dute bertan. Lehen deialdian beharrezko quorumik ez badago, ordu erdi geroago Osoko Batzarrerako bigarren deialdia egingo da, edozein dela partaidetza.
6. Osoko Batzarreko erabakiak gehiengo soilez hartuko dira. Botoetan berdinketarik izanez gero, lehendakariak ebatziko du.
7. Euskararen normalizazioan lanean diharduten teknikariak, gai horretan adituak diren pertsonak edota gai horri buruzko ezagutza berezia dutenak Batzorde Zuzendariak gonbidatuta joan ahal izango dira Osoko Batzarretara, botorik gabe.

5.2.4 Ohorezko Lehendakaria: egitekoak

Osoko Batzarreko presidentea izango da. Osoko Batzarra ireki, zuzendu eta itxi egingo du eta berak emango dio Osoko Batzarrari onespena.

5.3 Batzorde Zuzendaria

5.3.1 Helburuak

Bere lana izango da helburu hauek betetzea:

- Plana kudeatu, behar den koherentzia eta efizientzia zainduz.
- Partaideekiko eta herritarrekiko informazioa eta partaidetza bermatu.

5.3.2 Zereginak

Batzorde Zuzendariari dagozkio zeregin hauek:

1. AEBPN-ren Plan Estrategikoetan eta Urteko Gestio Planetan bildu beharreko politikak, helburuak, ekintzak eta behar diren aurrekontuak definitzea eta proposatzea, Udalak onartu ditzan. Udalak aldaketarik planteatuko balu, Batzorde Zuzendariak berriz aztertu beharko luke.
2. Planaren misioa eta helburuak betetzeko urteko gestio plana kudeatzea.
3. Udalaren organoek egiten dizkieten kontsultei eta errekerimenduei erantzutea.

4. Hitzarmenean partaide diren erakundeei bereziki eta gainerako herriko erakunde pribatuei eta publikoei informazioa ematea eta horiengandik iritziak eta ekarpenak jasotzea. Horretarako, behar diren sektoreetako kudeaketa egiteko lantaldeak antolatzea.
5. Planari jarraipena egiteko neurgailua ahalbideratzea eta antolatzea.
6. AEBPN-ren helburuen eta proiektuen ardura izatea (defendatzea)
7. Arautegi hau aplikatzeko egon daitezkeen zalantzak argitzea, horretarako behar diren kontsultak aldeztuz aurretik eginda, eta Batzorde honen funtzionamendu arauak erabakitzea.

5.3.3 Batzorde Zuzendariaren osaketa

Batzorde Zuzendaria sektore hauetako ordezkariekin osatuko da:

1. Arrasateko Udaleko ordezkari politikoak, Ohorezko Lehendakaria barne.
2. Euskararen normalizazioa helburu duten elkarteak, norbanakoen laguntzaz baliatzen direnak.
3. Euskara garatzeko lana egiten duten erakundeak.
4. Euren misioan euskararen normalizazioa jasotzen ez bada ere, euskara garatzeko lan-ildoak duten entitateak.
5. Norbanako bereziak, gainerako multzoetakoek proposatuta eta Batzorde Zuzendariak aukeratuta.

5.3.4 Aukeratzea

1. Sinatzaile bakoitza bere egitekoaren baitan arlo jakineko parte bilakatuko da. Guztira, gehienez, 15 pertsonako Batzorde Zuzendaria izango da eta gutxienez arlo bakoitzak ordezkari bana izango du.
2. Multzo bakoitzak %20ko partaidetza (hiru pertsona) izango du, gehienez.
3. Multzo bakoitzeko entitateek izendatuko dute lau urtez behin euren multzoan zer entitatek izango dituen ordezkariak. Entitate bakoitzaren ardura izango da erabakitzea Batzorde Zuzendarira zer ordezkari bidaliko duen.
4. Norbanako bereziak gainerako partaideen proposamenari jarraituz izendatuko dira.
5. Halaber, Batzorde Zuzendariaren partaide izango dira AEBPN-ko Idazkaritza Teknikoko kudeatzailea eta idazkaria, Alkatearen ebazpen bitartez izendatuta.

5.3.5 Karguak

Batzorde Zuzendariko karguen banaketa:

1. Batzorde Zuzendariaren lehendakaria, sinatzaileen ordezkoen artetik izendatua.
2. Bokalak, arlo bakoitzaren ordezkariak.

5.3.6 Lehendakariaren egitekoak

Batzorde Zuzendariaren lehendakaria da batzordearen ordezkari gorenena. Honako zeregin hauek bete behar ditu:

1. Batzarrerako deialdiak egitea eta gai zerrenda zehaztea.
2. Batzarretako buru eta moderatzaile izatea. Era berean, batzarreko eztabaidak koordinatzea eta haren erabakiak gauzatzea.
3. Batzorde Zuzendariaren helburuak bete daitezen zaintzea. Orobat, Batzorde Zuzendariaren jarduerak arautegian xedatutakoa betetzen duten zaintzea.
4. Batzorde Zuzendariaren batzarrak hartutako erabakien berri ematea Elkarlan Hitzarmeneko kideei.
5. Batzorde Zuzendariaren batzarrak ematen edo eskuordetzen dizkion zereginak betetzea.

5.3.7 Funtzionamendua

1. Batzorde Zuzendariak ohiko bilkura egingo du gutxienez hiru hilean behin.
2. Ez ohiko bilkurak deitu ahal izango dira, izaera bereziko gaiak daudenean, hala nola ez ohiko jarduerak edo salbuespeneko egoerak.
3. Ohiz kanpoko batzarra lehendakariak nahi duenean edota Batzorde Zuzendariko kideen heren batek nahi dutenean egingo da.
4. Batzorde Zuzendaria baliozkoa izan dadin, botoa emateko eskubidea duten kideen erdiak egon behar du bertan. Quorum hori beharrezkoa izango da erabakiak hartzeko.
5. Ohiko eta ezohiko bilkuren deialdia gutxienez zazpi egun lehenago egingo da.
6. Gai zerrenda Batzorde Zuzendariko lehendakariak egoki deritzon gaiekin eratuko da. Batzorde Zuzendariko gainerako kideek egiten dituzten proposamenak ere sartuko dira.
7. Eztabaidan eta, hala dagokionean, gai zerrendako gaiei buruzko dokumentazioak Idazkaritza Teknikoak izan behar du, Batzorde Zuzendaria osatzen duten kideen eskura.

Dokumentazio horrek deialdiaren egunetik bertatik egon behar du gertu.

8. Akordioak gehiengo soilez hartuko dira. Botoetan berdinketarik izanez gero, lehendakariak ebatziko du.

9. Batzorde Zuzendariak Elkarlan Hitzarmeneko kideei helaraziko dizkie iritziak, proposamenak eta ekimenak, eta Arrasateko gizarteari ezagutzera emango dizkio, aintzat har ditzaten.
10. Batzorde Zuzendariak beharrezkotzat jotzen duenean, hala eskatzen duten erakundeak zein, jorratuko diren gaiengatik, egoki irizten zaien erakundeak parte hartzera gonbidatuko dira.
11. Urtero memoria egingo da Batzorde Zuzendariak gauzatutako lanari buruz. Bertan, Planaren gauzatzeari buruzko ebaluazioaren aipamena egingo da.
12. Hitzarmenaren sinatzaile guztiek eskura izango dute Batzorde Zuzendariak sortutako dokumentazio guztia, Idazkaritza Teknikoaren bitartez.

5.4 Lan-batzordeak

Lan-batzordeak aztertze organoak dira, eta haien eginkizuna da esleitu zaizkien helburuetarako egoki diren txostenak, proposamenak eta jarduerak egitea. Egiten duten oro Batzorde Zuzendariaren batzarrari jakinaraziko diote, dagozkion erabakiak hartzeko.

Lan-batzordeek Idazkaritza Teknikoaren laguntza izango dute, edota aztertzen den gaian adituak edo jantziak diren pertsonena.

Lan-batzorde bakoitzak arduraduna izango du, lan-batzordeak proposatu eta Batzorde Zuzendariak izendatuta bere kideen artean.

5.5 Idazkaritza Teknikoa

Idazkaritza Teknikoa da Batzorde Zuzendariaren aginduetara kudeaketa administratiboaz eta teknikoaz arduratzen den organoa. Idazkaritza Teknikoko kudeatzailea eta idazkaria Batzorde Zuzendariko bilkuretara joango dira, hitzarekin baina botorik gabe.

Honako hauek dira idazkaritzaren zereginak:

1. Batzorde Zuzendariak erabakitakoa gauzatzea eta onartutako lan-programa garatzea.
2. Diru-sarreraren eta xedapenen aurrekontua egitea Batzorde Zuzendariak erabakitako helburu-planen arabera.
3. Arrasateko EBPN-ren dokumentazioa prestatzea, gordetzea eta zaintzea.
4. Osoko Batzarra eta Batzorde Zuzendaria antolatzea eta prestatzea, deialdiak barne. Organo horiek egiten dituzten bileren aktak idaztea.
5. Batzorde Zuzendariak hartutako erabakien lekukotza ematea.
6. Arrasateko EBPN-ren urteko jardueren memoria idaztea, Batzorde Zuzendariak onartzeko.

7. Lehendakariari bere eginkizunak betetzen laguntzea.
8. Batzorde Zuzendariak ematen edo eskuordetzen dizkion bestelako eginkizunak betetzea.

6. ELKARLAN HITZARMENEAN SARTZEA ETA BERTAKO KIDE IZAERA GALTZEA

Elkarlan Hitzarmenean sarrera beti irekia egongo da. Ezarritako misioarekin eta helburuekin ados egonik, Batzorde Zuzendarian eskatzen duten guztiek izango dute partaide izateko aukera, horretarako, Batzorde Zuzendariak hurrengo bileran aztertu eta Osoko Batzarrean aurkeztu eta, hala badagokio, onartuko du.

Erakunde bati Elkarlan Hitzarmeneko kide izatea galarazteko, arrazoi hauek hartuko dira kontuan:

1. Kidearen beraren borondatea.
2. Elkarlan Hitzarmeneko kide izateko eskakizunen bat betetzeari uztea.
3. Arautegia behin eta berriz ez betetzea.
4. Elkarlan Hitzarmeneko misioaren eta helburuen kontrako jokabideak, jarduerak edo adierazpenak egitea.

Batzorde Zuzendariak proposatu eta Elkarlan Hitzarmeneko partaideen Osoko Batzarrek erabakiko du kide izaeraren galtzea, dagokion espedientearen izapideak egin eta gero. Espediente horretan, erakundeari entzun beharko zaio.

7. HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AEBPN-ko Batzorde Zuzendariak berri emango die Arrasateko gainerako erakundeei zein herritar guztiei bere kudeaketari buruz eta bere jarduera eremuari loturiko gai guztiei buruz. Horretarako, eskura dituen eta egoki deritzen bideak eta informazio ekitaldiak erabiliko ditu. Halaber, iritzia eskatu ahal izango die erakundeei eta gainerako herritarrei eztabaiden, bileren, argibide eskaeren edo inkesten bidez, edo egoki deritzon beste edozein bide erabiliz.

Batzorde Zuzendaria gai da Arrasateko erakundeak Osoko Batzarrean parte hartzera gonbidatzeko, nahiz eta Hitzarmena sinatuta izan ez. Horretarako, Arrasateko erakundeek Osoko Batzarrean gonbidatu gisa parte hartzeko eskaera egin ahal izango dute, informazioa jasotzeko edo Batzorde Zuzendariari jarduera jakin batzuk egitea proposatzeko.

Eskaera idazki arrazoitu baten bidez egingo da, eta lehendakaritzari bidaliko zaio.

Eskaerarekin batera, proposatu nahi den gaia ezagutzea ahalbidetuko duten beharrezko eta behar besteko informazioa edo dokumentuak bidaliko dira.

8. ELKARLAN HITZARMENAREN ZABALKUNDEA

Batzorde Zuzendariak arautegi honen idatzi argitzaile bat prestatuko du. Hizkuntza eta estetika aproposa eta egokitua izango duen idatzi hau euskararen garapenarekin erlazioa duten elkarte eta erakunde guztietan banatuko da, Arrasateko erakundeen partaidetza ahalik eta gehien bultzatzeko.

9. HITZARMENA BERRITZEA

Hitzarmen hau lau urterako da, lau urtero berritu egiten da, egon daitezkeen hutsuneak bete edo osatuz.

10. ERANSKINA: EBPN-REN 2007-2010 URTE ARTEKO HELBURUAK

Arrasateko EBPN-ren 2007-2010 urte arteko helburuak hauek dira:

Etxe barruko erabilera

Helduek umeekin, ahal dutenean, beti euskaraz egingo dute; eta guztiek (euskaldunek eta erdaldunek) transmititu beharko dute euskara erabiltzeko dela, ez bakarrik jakiteko. Gurasoek D eredura bideratuko dituzte euren seme-alabak.

Heldu euskaldunek, euren artean ari direnean, %50ak euskaraz ia gehienetan hitz egingo dute, %25ak erdietan eta beste %25ak ia beti gaztelaniaz.

Familia euskalduna duten umeek eta gazteek, etxean, beti euskaraz egingo dute. Familia erdaldunetan, berriz, erdararen erabateko nagusitasuna "apurtu" beharko dugu: umeen eta gazteen arteko elkarrizketen %10a euskaraz izango da.

Helduek, urtean, liburu bat eta film bat euskaraz kontsumituko dute. Internetera sartzekoan, %50a euskaraz sartuko da eta euskaraz erabiliko du internet. Euskaldunak diren etxeetan, irratia eta telebista piztuta daudenen, denboraren laurdenean euskarazko kateak egongo dira sintonizatuta.

Egunean, 750 euskarazko egunkari saldu eta irakurri beharko dira Arrasaten, eta Goienkariaren zabalkundea mantendu egingo da.

Etxetik kanpo

Umeek eta gazteek, kalean, dezente (%60) egingo dute euskaraz.

Heldu euskaldunak euskaldunekin berbetan ari direla, %60ak euskaraz egingo du ia beti. Beste %20ak erdietan, eta gainerako %20ak ia beti gaztelaniaz.

Euskaldunak euskaldunez eta erdaldunez osatutako taldean hizketan ari direnean, eta erdalduna ez bada mintzakide, euskaldunen %20ak solasaldia euskaraz garatuko du. Solaskidea erdalduna bada eta euskara ulertzen duena, euskaldunen %10a euskaraz mintzatuko zaio.

Erakunde ofizialekin eta pribatuekin dituen harremanetan euskaldunen %90ak harremanok euskaraz hasiko ditu. Solaskidea euskalduna bada, harreman motzetan %90ak euskaraz jarraituko du, nahiz eta beste aldekoak gaztelaniaz jardun. Harreman luzeetan, berriz, %70ak euskaraz jarraituko du.

Erakunde pribatuen eskaintza

Ahozko harreman motzetan, erakunde pribatuek %80an euskaraz hasiko dute elkarrizketa, bezeroa euskalduna izan ala ez. Bezeroak euskaraz erantzuten badu, elkarrizketen %50a euskaraz garatuko da.

Harreman luzeak direnean, berriz, erakunde pribatuek elkarrizketen erdiak euskaraz hasiko dituzte, bezeroa euskalduna izan ala ez. Bezeroa euskalduna bada, hasitako elkarrizketa horien %50a euskaraz garatuko da.

Erakunde pribatuek antolatuko dituzten kanpo ekintzetatik (hitzaldiak, ikastaroak, jaialdiak...), hirutik bat euskaraz izango da.

Erakunde pribatuek, harreman idatzietan, euskara batua edo euskalkia erabiliko dute.

Hiru erakunde pribatutik batek seinale, inprimaki... gehienak (%66-%100) euskaratuta izango ditu. Bi erakunde pribatutik batek seinale, inprimaki... erdiak euskaratuta izango ditu. Sei erakunde pribatutik batek seinale, inprimaki... gehienak gaztelaniaz soilik izango ditu.

Bost erakunde pribatutik batek informazio zehatz gehiena (instrukzioak, liburuxkak, mezuak, etab.) euskaraz emango du. Bost erakunde pribatutik hiruk informazio zehatzaren erdia emango du euskaraz. Bost erakunde pribatutik batek informazio zehatzik gehiena gaztelaniaz soilik emango du.

Publizitatea erakunde pribatuen laurdenak euskaraz bakarrik egingo du, eta gainontzeko guztiek ele bietan.

Erakunde ofizialen eskaintza

Erakunde ofizialek ahozko harremanik gehienak (%66-%100) euskaraz hasiko dituzte, bezeroa euskalduna izan ala ez. Harremanak motzak badira eta bezeroa euskalduna bada, elkarrizketen %50a euskaraz garatuko da. Harremanak luzeak badira eta bezeroa euskalduna bada, hiru elkarrizketatik bat euskaraz garatuko da.

Erakunde ofizialek antolatuko dituzten kanpo ekintzetan (hitzaldiak, jaialdiak, kirol emankizunak...), hiru ekintzetatik bat euskaraz egingo dute.

Erakunde ofizialek harreman idatzietan batua erabiliko dute. Erakunde ofizialetan seinale, inprimaki... gehienak euskaraz egongo dira. Informazio zehatza (instrukzioak, liburuxkak, mezuak, etab.), berriz, %20a euskaraz bakarrik egongo da, eta %70a ele bietan (euskara eta gaztelania modu orekatuan erabilita). Publizitatea euskaraz egingo da beti.